

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Urre asiriarra zigarreten truke

Arrastoak

Liburutegi unibertsala hurbilago?

WWW.ARTEHISTORIA.ES



WWW.NYDAILYNEWS.COM

Ezkerrean, Ishtarren tenpluaren arrastoak. Aztarnategi horretan aurkitu zuten eskuineko argazkiko pieza txiki baina baliotsua, duela 3.200 urteko urrezko xafla asiriarra.

QUAL'AT SEROUAT (IRAK), 1913. Alemaniako arkeologo talde batek urrezko xafla txiki asiriarra topatu zuen, antzinako Ashur hiriko Ishtar jainkosaren tenpluko arrastoetan indusketa lanetan ari zirela. Aleak 9,5 gramo besterik ez zuen pisatzen eta duela 3.200 urtekoa zen, Tukulti-Ninurta I.a erregearen garaikoa (K.a. 1243-1207).

Hurrengo urtean altxor ñimiñoa Basorako portuan ontziratu eta Alemaniara bidean jarri zuten. Baina orduantxe Lehen Mundu Gerra piztu zen eta itsasontzia Portugalera desbideratu zuten. Dozena bat urtez han geratu zen eta, azkenean, 1926an Berlingo Vorderasiatisches Museumera iritsi zen. 1935ean ipini zuten ikusgai.

Baina xaflaren odisea hasi baino ez zen egin. Bost urte geroago, Bigarren Mundu Gerra lehertu zenean, urrezko laminatxoak museoaren biltegi-gorde zuten. Gerra amaitu eta inbentarioa berriro egin zutenean, xafla desagertua zen.

Handik ia 60 urtera, 2003ko apirilean, Riven Flamenbaum 92 urteko judutar poloniarra hil zen New Yorken eta, besteak beste, 90 urte lehe-

nago aurkitutako altxortxoak utzi zien seme-alabei. Zer gertatu zitzaion piezari urte horietan guztietan?

1945ean, armada gorriak Berlin hartu zuenean, soldadu sobietarrek Vorderasiatisches museoan arpilatu zuten eta horietako batek bereganatu zuen xafla asiriarra. Handik gutxira, Berlingo merkatu beltzean, soldaduak Auschwitzetik bizirik irtendako Flamenbaum saldu zion altxorra zigarreta pakete gutxi batzuen truke. Flamenbaum New Yorkera joan zen 1949an eta hurrengo urtean pieza eman zion aditu bati, azter zezan; adituak 250.000 dolarretan finkatu zuen haren prezioa. Ez zion deus ere esan inori, bere likore dendan lanean jarraitu zuen eta xaflaren berri ez zen berriro izan agurea hil arte.

2006an Berlingo museoak pieza itzultzeko eskatu zuen eta, horrenbestez, berriki amaitu den gatazka legala abiatu zen. Azkenean auzitegiek Flamenbaumdarren alde egin dute, museoak pieza berandu erreklamatu duela argudiatuz.

Zigarreta batzuen truke lortutakoak 7,4 milioi euroko balio ekonomikoa omen du gaur egun. Baina balio historiko kalkulazina izan du beti.

GOOGLE bilatzaileak Italiako gobernuarekin akordioa sinatu du, herrialde horretako 1860. urtea baino lehenagoko milioi bat liburu inguru, hala nola Danteren, Petrarcaen edo Galileoren lanak, digitalizatzeko.

Orain arte Googlek 40 liburutegi ingururekin zituen adostuak horrelako akordioak, baina sekula ez herrialde bateko gobernuarekin. Gastuak bilatzaile ezagunak hartuko ditu bere gain eta, lana burututa, bertsio digitalizatuak obrak utzi dizkion erakundearen eskuetan ere utziko ditu.

Askorentzat liburutegi unibertsal birtuala osatzeko bidean pauso garrantzitsua da hau, baina Alpeez bestaldean, Frantziako gobernuak ezezkia eman dio Googlek antzeko proposamen bati. Kultura ministroak "konkistatzailetzat" jo du Interneteko erraldoiaren ekimena.



WWW.POETRYCONNECTION.NET

Google bilatzaileak milioi bat liburu italiar digitalizatzeko ditu. Besteak beste, Danteren lanak.